

# Denborale menderatuak



**BEIA SALABERRI**  
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Urte-hondarrera hurbiltzen ari gara, behakoa lerratu zait dilindan dudana egutegira buruz: egun gutxi falta zaizkio den lekutik kendua izan aitzin. Astebate gabe, gogotik dut igorriko zintzilakaritik zuzenean birziklatzekoen artera, asteek eta hilabeteek baitute, gupidarik gabe, zikindu, ziliportatu, zimurtu, zirrimarratu, zilatu; hainbestearino, non urte bizi eta peka izana baizik ez baitu irudikatzen dagoneko. Bereak egin du.

Anartean, eskuartean, egutegia hostokatu dut azken-aurreko aldikotz, eta laketu naiz Eguberri eta Urtats arteko garai hauetan haien ohikoa eta berezkoa zai-gun nostalgialari. Tinta urdindun estiloz idatzitako eta jada irakurtezinak bihurtuak diren idazki zenbaitek perdukatuak dira egunak, asteak, hilabeteak. Hitz gutxitan da laburbiltzen, ororen buru, urtea: gertakari pozgarri, mediku hitzordu, talo txanda, ARGIAko iritzi entrega epe, zerga eta aseguru ordainketak.

Urtearen aurreko puntara heldu eta hortxe ikusi ditut, duela hamabi hilabete zirrimarratu zotal egunetako iragarpenak.

Zenbait oroitzapen etorri zait gogora: gurekin bizi zen ttanta xahar batek,

urte guztiz sasoi honetan aipatzen zituena *zotal egun* famatuak. Urteko lehen egunetan (lehen hamabietan, preseski), aroari zorrozki behatzen zion. Ez orenez oren. Baina kasik. Egunean bizpahiru aldiz, bederen, memento hartan egin zuen aroaren berri markatzen zuen xeheki paper puska batean. Ondotik, paper puska zimurtu hori hartu eta egutegi batean, hilabete bakoitzaren buruan, erditsuan eta bukaeran, larriki eta hitz gutxiz idatziko zuen, bere ustez eginen zuen aroa. Sinestea baitzen, urteko lehen egun horietan egiten zuen aroa, urteko hamabi hilabeteetan egin behar zuena zela, edo bederen hurbiltze zerbaite. Adibidez: urtarrilaren 5eko aroak irudikatuko zuen maiatzean egin beharko zuena.

Zertarako? Laborantzan oinarritu gizarte hartan, urteak zer ekar zezakeen aurreikusteko, ez-usteen eta ez-beharren uxatzeko, agian; dudarik gabe beldurren, denboraren eta naturaren menderatzeko esperantzarekin eginen zuketena aitzinekoek. Segurki, iragandako urtea baino hobea datorrelako itxaropena adierazten dute sineste horiek guztiek.

Dena izanik ere, urte osoa iragaten genuen, egutegia sukaldeko murrutan

loturik, hilabetez hilabete ezarriak ziren oharrak irakurtzen, ea amatxik egin iragarpenak gauzatzen ziren. Eta aitortu behar da hamarretatik zortzitan arrazoi eman behar geniola.

Egun horien ohiturari jarraitzen diogu oraindik zenbaitek, nahiz eta, gaurko egunean, zerbitzu meteorologikoak sekulan baino garatuagoak diren, egurtsa idatziko dugunak, larri-larri, betiko paper puska zimurtu batean eta sukaldeko zoko batean atxikitzeko, agian behakorik ez sekulan gehiago emanez.

Agian sineskieriak dira, eta sinesten duenak berea aurkituko du eta frogatuko. Agian egiazki behatu behar litekeena da. Berdin du. Nik, ahapetik aitortuko dut, nostalgiaz eta sineskieriaz, aurten ere, zotal egunetako aroa idatziko dudala, ez datorkidana menperatzeko ahaleginean. Iragan urtekoa, aldiz, edukiontzi horira eramanez dut. Gogoan atxikitze-koak gogoan baititut eta gaineratekoak nahiago baintuzke ez oroitu. Menderatuzat eman dezakegunez iazkoa, heldu diezaiegun datorrenari. Aitzineko urtea izan zena baino (oraindik) hobea gertatzea desiratuz, betiere, ondokoa. Hoberena, ez dezagula ahantz, oraino gertatzekoa baita. ●